



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTA ERATZEKO 2023KO URRIAREN 11AN
EGINDAKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Udalek izendaturiko ordezkariak

Ordezkariek

IZARO ELORZA ARREGI
XABIER IGARTUA LOIDI
GORKA ARTOLA ALBERDI
MARKEL AZKARGORTA CID
AINHOA LETE ZABALETA
MAIDER MORRAS AZPIAZU
GARAZI ETXEBERRIA SAN MIGUEL
KEPA URTEAGA GARCIA
JASONE GIRALDO MENENDEZ
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA
DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA
ARITZ IGELTZ LAZKANO
GARIKOITZ ITURBE ETXEBARRIA
ION ALBIZU GONZALEZ

Udalak

OÑATI
OÑATI
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ESKORIATZA
LENIZ-GATZAGA
ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA

Etorri ez direnak:

- Iñigo Ruiz Barron
- Ibon Unzetabarrenetxea Gallego

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2023ko urriaren 11an, 08:30etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko **hamalau ordezkari** bildu dira

Bilera honen helburua Mankomunitateko Gobernu Junta eratzea da, Estatutuetako 11. artikulua ezartzen dutena betez eta ondorengo gai-zerrendaren arabera:

- 1.- Adineko Mahaia eratzea
- 2.- Mankomunitatea osatzen duten udalek bidalitako kide ordezkarien izendapenak egiaztatzea.
- 3.- Gobernu Junta eratutzat jotzea.
- 4.- Lehendakaria eta Lehendakariordea hautatzea.
- 5.- Lehendakariak eta Lehendakariordeak karguak hartzea.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

1.- Adineko mahaia eratzea.

Mankomunitateko Estatutuen 11. artikuluan jasotakoaren arabera, Adineko Mahaia eratu da, ondorengoek osatuta: EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA Eskoriatzako Udaleko ordezkariak, zaharrena delako, eta GORKA ARTOLA ALBERDIK, Bergarako Udaleko ordezkariak, gazteena delako; zaharrenak lehendakari lanak egingo ditu eta idazkari-lanak Mankomunitateko idazkariari dagozkie.

2.- Mankomunitatea osatzen duten udalek bidalitako kide ordezkarien izendapenak egiaztatzea.

Ezarritako prozeduraren arabera, Adineko Mahaiak Mankomunitateko Gobernu Junta osatzeko udalek izendaturiko ordezkarien izendapenak egiaztatu ditu.

3.- Gobernu Junta eratutzat jotzea.

Karguaz jabetzeko legezko tramite guztiak bete ondoren, Udaletako ordezkari guztiak Gobernu Juntako kide gisa dagokien karguaz jabetu dira lehendakariaren aurrean, ezarritako forma orokorraren arabera, eta lehendakariak eratutzat aldarrikatu du Gobernu Junta.

4.- Lehendakariaren eta lehendakariordea hautatzea.

Mankomunitate honetako Estatutuek 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehendakaria eta lehendakariordea aukeratu behar dira, bi kargu hauek ezingo dituztelarik inola ere Udal bereko ordezkariak bete.

Lehenengo botazioan emandako botoen gehiengo absolutua lortzen duena izango da lehendakari hautatua. Ez badago hautagairik lehenengo botazioan gehiengo absolutua lortzen duenik, ondoren beste botazio bat egingo da, eta emandako botoen gehiengo simplea lortzen duen hautagaia izango da lehendakari aldarrikatua. Berdinketak irauten badu, hau zozketa bidez erabakiko da.

Berdin jokatuko da lehendakariordea hautatzeko, horretarako beste botazio bat eginez.

Lehenengo lehendakaria aukeratu da.

4.1) LEHENDAKARIA

Proposatzen den hautagaia Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga, Leniz-Gatzagako ordezkaria da.

Bozketa egiten dute eta hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 14

Ondorioz, Dorleta Elkorobarrutia izendatzen da Debagoieneko Mankomunitateko Lehendakaria 2023-2027 Legealdirako.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

4.2) LEHENDAKARIORDEA

- Proposatzen den hautagaia Xabier Igartua Loidi, Oñatiko ordezkaria da.
- Bozketa egiten dute eta hau da emaitza:
- Aldeko botoak: 14
- Ondorioz, Xabier Igartua izendatzen da Debagoieneko Mankomunitateko Lehendakariordea 2023-2027 Legealdirako.

Bilera bukatutzat ematen da 08:47an, eta akta honetan jasotzen dira bertan hartutako erabakiak, dagozkion efektuetarako.

LEHENDAKARIA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

LEIRE UCIN Digitalki sinatuta
norenandik:
SORALUCE LEIRE UCIN
SORALUCE -
72463430K
72463430K Data: 2023.10.11
11:46:25 +02'00'

